


## 2024KO AZAROAK 11, ASTELEHENA

### Mugako heriotzak eta desagerpenak kontatzeko haria. Bordatzeko tailer partehartzailea

***Lekua:*** *Gimnasio Aretoa. La Bolsa Eraikina (link-a, Google Maps-en)*

**Ordua:** 18.00-20.30

EAEko biztanle orori irekitako espazioa. Tailer hau bertaratzen diren pertsonek elkarrekin hausnartzeko eta sortzeko espazioa izango da, bordatua erabiliz praktika eta metafora bezala. Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak eta Pablo Olavide unibertsitateko Esperanza Jorge Barbuzano antropologoak koordinatuko dute tailerra. Ez da beharrezkoa bordatzen jakitea parte hartzeko.

## 2024KO AZAROAK 12, ASTEARTEA

### EZTABAIDA SAIOA
### "Mugako heriotzak eta desagerpenak kontatu"

Lekua: Oteiza Aretoa. Bizkaia Aretoa (link-a Google Maps-en)

**PROGRAMA**

| | |
|---|---|
| **9.30-10.15** | **Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena**<br>- Kontu Laborategiko kideak: Gabriel Gatti eta Álvaro Ramírez March<br>- Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeko kidea: Arantza Gutierrez Paz |
| **10.15-11.15** | **Inagurazio ponentzia:**<br>- **Carolina Kobelinksy.** Gizarte antropologoa *Centre national de la recherche scientifique*-en (CNRS, Frantzia). MECMI (*Morts en contexte de migration* - CRNS / Quebec-eko Unibertsitatea) ikerketa programaren koordinatzailea. |
| **11.15-11.45** | **Kafea hartzeko atsedena** |
| **11.45-13.45** | **Lehen saioa. Bizitzak zaindu, zenbatu eta kontatu**<br>- **Fatumata Baldé:** Erizain laguntzailea Lleidan eta Omar Baldéren arreba, zazpi anai-arrebetako hirugarrena.<br>- **Ana Enamorado:** Hondurastarra, Oscar Antonio López Enamoradoren ama. 2010ko urtarrilean desagertu zen Oscar Jaliscoko estatuan, Mexiko mendebaldean. 12 urte dira Ana Mexikon bizi dela. Pertsona migratuen Giza Eskubiden aldeko ekintzailea da eta *Red Regional de Familias Migrantes* sarearen sortzailea. Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikako familiei (emakumeei batez ere) Mexikoko estatuan desagertutako senideak bilatzen laguntzea da sare horren helburua. |

| | |
|---|---|
| | - **Giacomo Donadio**: *Carovane Migranti*-ko kidea. Italiako antolakundea da eta Erdialdeo Amerikan eta Afrika iparraldean "mugetako indarkeriaren lekuko" izan diren pertsonei laguntzen diete.<br>- **Valentina delli Gatti**: *Mem.med - Memoria Mediterranea* italiar erakundeko kidea. Migrazio bidean desagertu diren senideen bila ari diren pertsonei laguntzen diete. |
| **13.45-15.45** | **Bazkaltzeko atsedena** |
| **15.45-17.45** | **Bigarren saioa. Mugetako heriotzak eta desagerpenak kontatzeko arazoak**<br>- **Anna Surinyach** (freelance fotokazetaria, Revista 5W, Bartzelona). "El mar. El mur" podcasta egin du berriki Kataluniako ikus-entzunezko korporazioarekin, eta "Un mar de luto" argazkilaritza dokumental proiektu pertsonalean ari da lanean.<br>- **Esperanza Jorge** (Pablo Olavide Unibertsitatea, Sevilla). Gizarte antropologoa da eta Espainiako estatuko hegoaldeko mugan egin du lan. Besteak beste, galeraren errepresentazioak ikertu ditu, metodologia kolaboratzaileak eta arteetan oinarritutako teknikak erabiliz. Espainiako estatuaren hegoaldeko mugan bakarrik ez, Erdialdeko Amerikan desagertutako pertsonekin ere egiten du lan.<br>- **María Martínez** (UNED, Madril). Soziologoa da. Apurketa sozialeko testuinguruetan identitatearen eraikuntza ikertu du. Pertsona migratzaileen desagerpenak aztertu ditu Ipar Amerikan eta pertsonen salerosketa Europar Batasunean. |
| **17-15-19.15** | **Hirugarren saioa. Erregistratu: heriotzak eta desagerpenak (ezin) zenbatu**<br>- **David Casado Neira.** Vigoko Unibertsitateko Soziologiako Departamentuko irakaslea. Espainiako Gerra Zibilean hildakoen zenbaketen inguruan egiten du lan Galizian.<br>- **Ana Rosado Caro**. *Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía (APDHA)* elkarteko teknikaria eta *Vidas Sin Rastro* (2022) kanpainaren zuzendaria, migrazio bidean desagertu diren senideak bilatzen dituzten senideek bizitako zailtasunei buruzkoa.<br>- **María Greco.** Fuerteventurako *Asociación Entremares* elkarteko kidea. Hogei urte baino gehiago darama migrazioaren esparruan lanean. *Entremares* elkarteak Kanariar Uharteetara iristen diren hildakoak zenbatzen ditu, pertsona migratzaileen identifikazioarekin lotutako problematikak landuz eta memoria ekimenak bultzatuz, migrazio bidean hildakoen memoria duinaren alde. |



## 2024KO AZAROAK 13, ASTEAZKENA

### Muga heriotzak eta desagerpenak kontatzea. Podcast grabaketa tailer partehartzailea

***Lekua:*** *Audiolab. Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatea. Leioako Campusa, EHU.* *(link-a, Google Maps-en)*

**Ordua:** 15.00-19.00

EHUko unibertsitate-komunitateari irekitako espazioa. Aurreko egunean jardunaldian parte hartu duten kideekin podcast grabazioa. Arantza Gutierrez (Ongi Etorri Errefuxiatuak), Álvaro Ramírez March eta Larraitz Fagundez (Kontu Laborategia - UPV/EHU) arituko dira podcasta gidatzen eta María Greco-k (Entremares, Fuerteventura) ere hartuko du parte.